

Garazi Telleria Etxeberria

A maila • Aipamena



Garazi Telleria Etxeberria naiz. Aizkorri magalean dagoen Zegama herrian jaio nintzen 2000ko otsailaren 12an. Bertako Aitxuri Herri Eskolan hasi nituen ikasketak. Ondoren, Beasainen jarraitu dut ikasten; lehenik eta behin, Loinazpen eta orain Txindoki institutuan dihardut bigarrenko batxilergoan. Zaletasunei dagokienean, musika, mendia eta idaztea atsegin ditut. Honenbestez, Beasaingo Literatura lehiaketan parte hartzea otu zitzaidan *Gezurrak egia zireneko ilargiaren krabelina* lana aurkeztuz.

GEZURRAK EGIA ZIRENEKO ILARGIAREN KRABELINA

Zein gogorra den maite duguna aldentzen ikustea. Zein mingotsa den gure bizitzaren parte izan den hura ihesi doala ohartzea. Zurea den edo zen hura jadanik ez duzu ezagutzen edota ez duzu berriro ikusiko lehen zena bezala. Zena eta dena, bi aditz eta zein nolakoak gainera... hain da latza iraganean hitz egitea inoiz baino alboagoan sentitzen duzun hartaz... hain urruti eta hain gertu aldi berean... kasu egidazu, ez da batere erraza.

Ez zaitudala galdu esaten didate. Nik baino lehenago alde egin duzula soilik. Jaio orduko gure ibilbideari ekiten diogula, urteak bete heinean eraikitako bidean zehar oinez dihardugula, geroz eta malkar handiagotan murgilduz eta azkenean, galtzadaren amaieran heriotzarekin topo egiten dugula. Oraingo honetan lehia irabazi duzula ezin uka dezaket. Ni baino beranduago jaio eta ni baino lehenago baitzaitut helmugan, geroko bizitzara bideratuko zaituen zubian bertan.

Zurekin bizitako unerik ederrenak bihotzean tatuaturik daramatzat. Inor ez dela sekulan hiltzen diote besteen oroimenean jarraitzen badu. Behin bizitzen garela eta birritan hil. Arnasteari uztean lehenik, eta norberaren izena azken aldiz aipatzen dutenean, bigarrenko aldiz. Heriotza, ahaztearekin datorkigu eta ez zahartzearekin. Behin hala esan zidaten, ez zegoela zoriontasunik bizitzen ez dakienarentzat eta ez dagoela bizitzarik heriotzarik ulertzen ez duenarentzat.

Biok elkarrekin geundelarik banaezinak eta suntsiezinak ginen. Indartsuak eta borrokalariak. Gaur, aitzitik, umezurtz geratu naizela esan liteke. Neure bidelaguna atzean geratu da, edo aurrean, nork daki non, hemen ez behintzat... Zure sena osoki galdu dut, zure hanka arrastoak neguko lehen egun elurtsu honetan ezabatuta geratu dira betiko. Patuak, elur malutez apaindutako heriotzara zuzendu zaituela esan liteke: heriotza zurirantz.

Oroimenen barruan arakatu eta elkarren alboan igarotako uneez gogoratzean ezin izan dut idatzi hau amaitu... ez naiz gai izan... Berriegia da hau guztia niretzat, aldaketa bortitzegia, krudelegia, nire bizitzaren pilarea zen hura bat-batean hilotz bihurtuta ikustea.

Gaurkoan elkarrekin agertzen ginen argazkiei so nago, masailetatik beherantz bideratzen diren malkoez bustitzen direlarik. Hain zen polita dena eta hain amaigabea zirudien. Oroitzen al zara?

Zu eta ni, ni eta zu, beti bezain irribarretsu, gure bizitzan parte izan diren une eta hausnarketak eraikitzen. Momentu onak zein txarrak, barre algara ozenenak zein negar zotinik luzeenak, festa-leku guztietako mozkor eroak zein ikasketa arratsalde luzeak, hondartzatik hondartzara igarotako udara amaigabeak eta etxean sutondoan ikusitako film guztiak... Oroitzen? Beti elkarrekin egongo ginela zin egiten genion elkarri. Eta badakizu zer den guztietan okerrera? Inuzente bat bezala sinetsi egiten nuela hala izango zela beti.

Eskerrak une honetan behintzat ez zaitudan alboan. Hala izanez gero negar egiteari uzteko esango baitzenidake demanda batean, bizitza joan-etorritz josirik dagoela, memento ederrak zein txarrak aldiunekoak direla eta nola ez diren, alajaina, instantbeltzak azkar igaroko bizitza bera ere arinetan ihesi badoa. Une zail bakoitzaren ostean bizipen zoragarriak etorriko direla, horixe zenioen beti, eta ea horrela den. Oso laburra dela gizakion ibilbidea triste egoteko eta negar malkoek ez didatela ezer konponduko. Eta egia da. Aitortu beharrean nago, baina ze demontre, ene barrua lasaitu egin da.

Egunerokotasunean kudeatu ohi ditugun hainbeste arazo, ezusteko, tristurak... igarotzeak merezi al du gero hauts zuri ahortzi bat bilakatuta amaitzeko? Heriotza orok iluntasuna dakar lotuta arrastaka atzetik. Gizabanako batzuek erraz aurkitzen dute argitasuna, eta beste batzuek, aldiz, zulo beltz edo amildegi batetik ateratzerik ez dute sekula santan lortzen ...

Ez dakit nola jokatu, ez norantz bideratu nire etorkizuna, galdurik nago noraezean dabilen itsasontziaren pareko. Hainbeste galdera hain erantzun antzuentzat. Zurekin batera ikusten nuen geroa eta jadanik bakar-bakarrik utzi nauzu mundu handi ospel baten aurrean, txikiegia eta ezertarako gai ez naizelarik... Zoriak nire aurka jokatu du oraingoan, ez ditut kartak aldeko izan eta galtzaile suertatu naiz mus partida honetan. Ez didazue ukatuko ez dela samurra suertatzen gertuko baten hutsunea sumatzea, gogorra dela onartzea ez duzula gehiago gizaseme horren bisaiarik ikusiko, hizketaldi bat mantenduko edota laztanik jasoko. Hain azkar elkar ulertzeko balio izaten ziren begirada horiek ere ez dira errepikatuko, atzean geratu ziren jada, nire haurtzaro eta txotxolokeriekin batera. Egun, bakarrik geratu naiz gure begiraden artean.

Sinesgaitza dirudi honek guztiak. Hain zen polita dena atzo eta hain husturik gaude gaur... Ezin liteke hogeita lau ordu horrenbesterainoko anabasa sortzea gurean. Etxea eusten zuen laugarren zutabearen faltan eraikuntza kolokan dago, euskal kantutegiko *Agure Zaharraren* etxea bezain ustela.

Ez nago ohituta egunero esnatzean zein oheratzean etxeko ohea hutsik topatzen, otorduetan lau plateren ordeztu hiru jartzen eta zure aulkia hotz eta bakarrik ikusten, zure arropa zena jaberik gabe nola geratu den, nork berotasun pixka bat emango dion zain. Hasteko, etxera iritsi eta hau hutsik nabaritzean, eta bukatzeko, zure argazkia Arantzazuko Ama Birjinaren bi kandelaz argiztatua ikustean... ezin dut aurrera jarraitu. Txikiegia naiz. Apurtuta nago barrutik zein kanpotik, eta ez naiz egoerari atzamarrak ateratzeko gai kapasta bat banintz bezala. Ez dut borrokatzeko kemenik, ez dut horretarako arrazoi sakonik...

Hain da handia zure hutsunea... egunsentiko txorien kantuek ere ez diruditela berdinak, eguzkia lainoen atzean ezkutatua edo giltzapetua geratu dela dirudi, eta haizea eta euria nagusitu... Telebistak eta irratiak ere ez dute lehen bezainbesteko alaitasunik ekartzen eta etxeko zakurra ere inoiz baino goibelago dabil, burumakur eta balantzaka. Musika alaiena ere goibela dirudi. Ez dago ezer zure hutsunea betetzeko modukorik. Hain zinen handia... eta beharrezkoa. Behar zaitut.

Edo behar zaitugu. Zer esan gure amaz? Beti esan ohi da guraso batentzat egoerarik mingotsena bere seme-alaben bat hilobiratzea dela, ez? Argi eta garbi oroitzen dut gure amaren aurpegia kaxa beltz, arrotz, ilun eta mingarri hartan lau hormen artean nola sartzen zintuzten ikustean, eta zin degizut, ez dut sekula santan ahortziko. Zure argazkia zeraman esku batean, hain eder eta zoriontsu agertzen zinenekoa, eta beste eskuan, berriz, krabelina sorta bat zeraman, hainbeste gustatzen zitzaizkizun horiek. Beti esaten zenuen krabelin zuririk gabeko ezkontzak ez dutela xarmarik. Eta ezteiek ez duten bezala, adio-ekitaldi edo gero arte batek are gutxiago. Hori eta gehiago merezi zenuen.

Ama horrela ikustearekin gutxi ez balitz, orain dator guztietan okerrena. Nola azaldu hau dena, txamarratik tiraka, zer gertatzen ari den galdetzen dizun neba txikiari? Nola esan bere arreba zena dela auto luze beltz horretan herriko lekuri trasteenera eraman dutena?

Zergatik ari naizen negarrez galdetzen dit, gure amak zer dela eta daramatzan betaurreko ilunak neguko egun elurtsu honetan, zergatik egon den limusina beltz bat gure etxe ondoan goizean eta zer den kaxaren barruan ezkututzen den sorpresa. Galdera bakoitza entzuten nuen heinean ñimiñoagoa nintzen. Beti esan ohi izan didate gezurrak esatea ez dela zuzena eta bidezkoa. Baina egokia al litzateke lau urteko haur bati bihotza hamar mila pusketatan eginda uztea ziur ere ez nagoenean dena ulertuko lukeela? Txikiegia da, eta badu horretarako astia, nahikoa ezbehar bestela ere igaro beharko baititu...

Berriro ere galdera berdinak luzatu dizkit eta erantzunik ez jasotzean amarengana jotzeaz zegoela ikustean neba txikia besotan hartu eta besaulki batera eraman dut. Nire magalean eseri eta honelaxe hasi natzaio: ara laztana, gogoratzen al duzu Laika txakurraren istorioa? Ba Nahiarena ere ez da oso desberdina. Badakizu beti esaten zuela bere ametsa ilargia zapaltzea zela egun elurtsu batean. Ilargian eseri eta elurra mara-mara ikustea inguru guztiak zuritzen. Atzo lehen elur malutak erortzean bere ametsa betetzeko unea iritsi zela pentsatu ez zuen ba, eta beraz, dena antolatzeari ekin zion. Badakizu desioak norbaiti kontatuz gero ez direla betetzen, beraz, isilean alde egin du. Amatxo goibel dago agur esaterik eduki ez duelako, eta beraz, kaxa beltz honetan sartu ditu berari ilargira bidali nahi dizkion gauza guztiak: janaria, eskutitzak eta opariak. Gura duzu zuk ere marrazkiren bat igorri? Badakizu Laika txakurra ilargira joaten lehen zakurra izan zela eta baita azkena ere. Itzultzeko tiketik gabe joan zen, betiko han gera zedin. Nahiak ere horrelaxe nahi izan du. Laikaren ondoan igaro bizitza osoa ilargian, berriro ere itzuli gabe gure etxera. Horrek ez du esan nahi maite ez gaituenik eta gure hutsunea sumatuko ez duenik. Pentsa ezazu zer polita izango den ilargi betea dagoen egun orotan Nahiaren bisaia bertan islatuta ikustea, ilargiko dama berria izango da, bertako erregina Anbotoko Mari bezala. Baina baldintza bat bete beharrean zaude, zure hitza eman behar didazu eta gure sekretua izango da. Norbaitek arreba non duzun galdetuz gero oso gaixorik zegoenez hil egin dela esan beharrean gaude, bestela, egia esanez gero denek joan nahiko dute ilargira eta Nahia lekuri gabe geratuko da, tronurik gabeko erregina bat bezala. Eta guk ez dugu horrelakorik nahi, ezta?

Txundituta begiratzen dit, begirik kendu gabe. Dirudienaz ahaztu du limusinaren kontua, eta hobe horrela, ez bainekien zein aitzakia jarri kontu horri. Badakit ez dudala ondo egin egia ez kontatzen, baina sinetsiezadazu, ez dut beste irtenbiderik aurkitu.

Beraz, gaurkoan, bi egunen ondoren, hemen gabilta, zuri ilargira marrazki batez lagunduta bidaltzeko gutuna idazten saiatzen. Honela dio:

Kaixo, Nahia:

Julen naiz, zure neba lurtarra jajaja. Larraitz ari zait laguntzen zuri idazten; nik marrazki bat egin dizut. Gozatu zure ametsaz eta lagun asko egin. Ez dakizu zenbat gauza bidali dizkizun amatxok eta ziur egon asko gustatuko zaizkizula. Lagun guztiei esan nahi diet arreba bat dudala ilargian, baina Larraitzen eta nire sekretua denez tirta bat jarrita nabil ahoan, ezer esan ezin dudala gogoratzeko.

Nolakoa da Ilargia? Nire ikastola bezain handia al da? Ba al dago bertan super-heroirik edo animaliarik?

Marrazki bat egin dizut krabelin zuri batena. Gustatzea espero dut. Ilargi betea dagoen guztietan zure logelako leihotik begira egongo gara zuri keinuka, baina bitartean zure ohea niretzat har dezaket? Meseeeee!

Muxu bat zuretzat eta beste bat Laikarentzat. Maite zaitut pila-pila patata tortilla.

Julen (eta Larraitz)

Bizitza guztiak heriotzan amaitzen dira, errekatxo guztiak itsasoan amaitzen diren legez. Ibaiak ez dakit, baina eskutitz hau idaztearekin batera nire malko guztiekin ozeano oso bat betetzeko lain edukiko lukete... Gutuna eta marrazkia eskuetan hartu eta hilerrirantz abiatu ginen. Julenek lehen aldiz kaxa beltz arrotz hura ikusi zuen lekurantz. Azkar asko aurkitu zuen zure hilkutxaren lekua. Krabelina zuriak zimeltzen hasirik zeuden eta nire bihotza bezain hondatuak ziruditen. Haien alboan utzi genituen bai gutuna eta bai marrazkia ere, elurrak noiz estaliko zituen zain.

Harrigarriena nire gezurrak zein nolako fruitua eman duten ikustean datza. Ez dakizu zenbat alaitasun eta zenbat dolu ekarri duzun gurera. Julen inoiz baino alaiago dago eta ez da nire albotik urruntzen. Egunero marrazki batekin datorkit, zuretzat espresuki eginda. Gurasoak, eta ni neu ere, gero eta hobeto gaude. Neba txikiaren alaitasunak asko samurtzen du egoera, dena, beste ikuspegi batekin ikusten lagunduz.

Azkenean, ahizpa maitea, arrazoi zenuen, une zail orok momentu onak dakartza atzetik. Gure etxeko txikiaren poztasunak bazter guztiak argitu ditu. Ahaztu dira gure etxeko negar saioak kaletik etxeratzen zen bakoitzeko, eskolara joan nahi ezak eta lagunengandik baztertuta igarotzen zituen arrasti luzeak. Ia ez da gogoratzen "21 trisomia" edo Down eritasun kronikoa pairatzen duela, eta bizipozaz gainezka bizi den banako bat dirudi, hankak lurrean dituen eta begiak elurraz estalitako ilargi zuri iruzur batean finkaturik.

Irakaspen bat eskuratu dut bizipen gazi-gozo honetatik: une atseginak eta zailak biraka dabilta, ilargia lurraren inguruan dabilen bezala eta egoera latz guztien atzean baikortasun usaia darion krabelin zuri bat ezkutuan aurki dezakegu.